



OSPITALEKO PROFESIOALEN GOGOBETETASUN- INKESTAREN 2003ko EMAITZAK



Osakidetza
Servicio vasco de salud

Hospital
Donostia
Ospitalea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Donostia Ospitalearen helburu nagusietako bat bere profesionalen gogobetetasun-maila zein den ezagutzea da, Giza Baliabideen Kudeaketa hobetzeko aukera emango duten alderdiak zehazteko xedez.

Dokumentu honetan, 2003ko otsailean Donostiako Ospitaleko profesionali egin zitzaien inkestaren emaitzak laburbiltzen dira.

INKESTAREN ARLOAK

- 1 Laneko baldintzak
- 2 Heziketa
- 3 Promozio eta bilakaera profesionala
- 4 Aitormena
- 5 Ordainsariak
- 6 Arduradun/kolaboratzaile harremana
- 7 Partaidetza
- 8 Antolamendua eta aldagaitza kudeaketa
- 9 Laneko giroa
- 10 Barne-komunikazioa
- 11 Helburuak ezagutzea eta horiekin bat etortzea
- 12 Zuzendaritzaren Pertzepzioa

INKESTA

Galdera-sortak departamentu bakoitzeko arduradunen bidez banatu ziren, eta horiei, beren agindupean zeukaten pertsona-kopurua adina galdera-sorta eman zitzaien. Guztira, 3.000 galdera-sorta inguru banatu ziren.

EMAITZAK

Erantzun guztien ehunekoa %50ekoa izan da, guztira behar bezala betetako 1.544 galdera-sorta jaso baitira.

Ondorengo taula honetan kategoria profesional bakoitzaren erantzun-ehunekoa ageri dira erantzun guztiekin eta talde profesional hori osatzen duen pertsona-kopuruarekin alderatuz.

	% Guztiarekin erkatuz	% Talde profesiona- larekin erkatuz
• Fakultatiboak	17,4	45,8
• Erizainak	36,5	54,9
• Erizaintzakoi laguntzaileak	20,3	42,9
• Teknikari espezialista eta bestelako perts. sanitarioa	4,1	61,3
• Jagoleak	5,1	50
• Administrazioko Pertsonala	8,7	46,3
• Mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonala	8	44,6

Inkestako emaitzak arlo horietako bakoitzean aurkezterakoan, kontuan hartzen dira izandako balioespen positiboak. Horretarako, horietako bakoitzean gustura eta oso gustura aukeren erantzun-ehunekoa adieraziko da.

Gainera, profesionalak beren gogobetetasun profesionalean eragin handiena izan dezaketen alderdiez daukaten ikuspegia islatzen duen atal bat agertzen da, baita sarrien egiten diren iradokizunak ere.

LANEKO BALDINTZEN ARLOA

Arratsalde - gau txanda aldakorreko lan-erregimena duten pertsonak dira gogobetetasun-ezaren ehuneko handiena agertzen dutenak (%45,83 batere gustura ez eta %41,67 gustura ez), mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonalarekin batera (%24,59 batere gustura ez eta %32,79 gustura ez).

Alderantziz, ekipo-zuzendaritzen gaineko agintea duten arduradun eta profesionalen ehuneko handi batek laneko baldintzekin gogobetetasun-maila on bat agertzen dute, eta hain zuzen ere, %57,41 dira gustura eta %8,10 oso gustura.


Fakultatiboek (%52,33 gustura) eta administrazioko pertsonalak (%45,45 gustura eta %9,09 oso gustura) gogobetetasun-ehuneko handiak erakusten dituzte, baita goizeko txanda finkoa duten langileek ere (%50,09 gustura eta %6,72 oso gustura).

LANEKO BALDINTZEN ARLOA


GOGOBETETASUN OROKORRA

%42,57


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



HEZIKETA ARLOA

Jagoleek erakusten dute gogobetetasun-ezik handiena erakundearen heziketa-politikarekin (%50 batere gustura ez eta %30,34 gustura ez). Ekipo-zuzendaritzaren gainean aginterik ez duten profesionalek (%46,53 batere gustura ez eta %36,41 gustura ez) eta bien bitarteko pertsonalak (%46,42 batere gustura ez eta %35,80 gustura ez) ez daude pozik horri eman zaion garrantziarekin. Aipatzekoak dira, bereziki, arratsalde - gau txanda aldakorreko lan-erregimenean dauden pertsonen dagozkien ehunekoak, batere gustura ez daudenak %79,17 izanik, gaueko txanda finkokoan artean %63,16 batere gustura ez eta arratsaldeko txanda finkokoan artean %52,08 batere gustura ez.


Heziketarekin gogobetetasun-mailarik handiena erakusten dutenak ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradunak eta profesionalak dira (%28,01 gustura eta %2,31 oso gustura).

HEZIKETA ARLOA


GOGOBETETASUN OROKORRA

%11,55


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)











IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



PROMOZIO ETA BILAKAERA PROFESIONALAREN ARLOA

Ikus daiteke mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonalak agertzen dituela gogobetetasun-ezaren ehunekorik handienak promozio eta bilakaera profesionalerako aukerei dagokienez (%26,64), eta horien ondoren, Amarako osasun-zentrotik datozen pertsonak daude (%21,75), teknikari espezialistak eta bestelako pertsonal sanitarioa (%20,97), goiz - arratsalde txanda aldakorreko pertsonak (%20,83) eta Osakidetzan bost urte baino gehiago daramatzaten langileak (%20,60).

Gogobetetasun-mailarik handiena dutenak Osakidetzan 5 urte baino gutxiago daramatzatenak dira (%42,39 gustura), eta ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalak (%42,01 gustura eta %7,64 oso gustura).



AITORMEN ARLOA

Ikus daiteke erakundean aitormenak balioespen negatiboa jasotzen duela zenbait kolektiboren artean, eta horietatik aipatzekoak dira mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonala (%36,07 batere gustura ez eta %37,98 gustura ez), gaueko txanda finkoan lan egiten duten pertsonak (%38,60 batere gustura ez), arratsalde - gau txanda aldakorrean lan egiten dutenak (%20,83 batere gustura ez eta %58,33 gustura ez), eta erizaintzako kolektiboaren barruan daudenak (%23,82 batere gustura ez eta %50,09 gustura ez).


Kontrako aldean leudeke ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalak (%33,80 gustura eta %3,70 oso gustura) eta fakultatiboak (%28,18 gustura eta %2,64 oso gustura).

AITORMEN ARLOA


GOGOBETETASUN OROKORRA

%27,61


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



ORDAINSARIEN ARLOA

Ordainsarien arloan fakultatiboen kolektiboa dugu gogobetetasun-ezik handiena erakusten duena (%31,19 batere gustura ez eta %44,03 gustura ez), baita ekipozuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalak ere (%25 batere gustura ez eta %42,36 gustura ez). Ordainsariekin beren gogobetetasun-eza agertzen duten beste kolektibo batzuk dira honakoak: zerbitzuen antolamenduan bost eta hamabost urte bitartean daramatzaten pertsonak (%20,73 batere gustura ez eta %43,76 gustura ez), goizeko txanda finkoan lan egiten duten pertsonak (%20,87 batere gustura ez eta %43,77 gustura ez), eta 45 eta 54 urte bitarteko pertsonak (%20,32 batere gustura ez eta %43,53 gustura ez). Aipatzekoa da, hala-ber, erizaintzako pertsonalaren barruan %49,13 ez daudela gustura ordainsariekin.


Aldiz, gogobetetasun-mailarik handiena erakusten dutenak Osakidetzan urtebete eta bost urte bitartean daramaten pertsonak dira (%8,66 oso gustura eta %42,86 gustura), eta ondoren datoz erizaintzaiko laguntzaileen kolektiboa (%4,52 oso gustura eta %44,73 gustura) eta jagoleak (%3,42 oso gustura eta %41,03 gustura).

**ORDAINSARIEN
ARLOA**


**GOGOBETETASUN
OROKORRA**

%32,77


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



ARDURADUN/LAGUNTZAILE HARREMANAREN ARLOA

Gaueko txanda finkoan lan egiten duten pertsonak dira gogobetetasun-ezik handiena erakusten dutenak beren goragokoekin duten harremanari dagokionez (%30,26 batere gustura ez eta %32,89 gustura ez).

Halaber, arlo honetan beren gogobetetasun-eza erakusten dute teknikari espezialistek eta bestelako pertsonal sanitarioak (%19,35 batere gustura ez eta %32,26 gustura ez), baita arratsalde - gau txanda aldakorrean lan egiten duten pertsonek (%53,13 gustura ez) eta arratsaldeko txanda finkoa dutenek ere (%21,88 batere gustura ez).


Arduradun - laguntzaile harremanarekin gogobetetasun-mailarik handiena erakutsi duten pertsonen kolektiboak hauek dira: administrazioko pertsonala (%50,95 gustura eta %15,72 oso gustura), 35 urtetik beherakoak (%50,34 gustura eta %11,42 oso gustura), jagoleak (%47,76 gustura eta %12,18 oso gustura) eta aldi baterako pertsonala (%47,53 gustura eta %11,54 oso gustura).

ARDURADUN/ LAGUNTZAILE HARREMANAREN ARLOA


GOGOBETETASUN
OROKORRA

%52,74


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



PARTAIDETZAREN ARLOA

Partaidetzan aipatzekoa da gaueko txanda finkoan lan egiten duten pertsonen %50,88k beren gogobetetasun-eza agertu dutela arlo honekin. Mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonalaren %42,35ek ere bere gogobetetasun-eza azaldu du partaidetzarako aukerekin. Arlo honi puntuazio kaskarra eman dioten beste kolektibo batzuk dira honakoak: erizaintzako pertsonala (%44,11 gustura ez), Osakidetzan bost eta hamabost urte daramatzaten pertsonak (%43,81 gustura ez), eta arratsaldeko txanda finkoa duten pertsonak (%31,25 batere gustura ez eta %33,33 gustura ez).


Partaidetzarako aukerekin adostasun handiena erakutsi dutenak, berriz, agintea duten arduradun eta profesionalak dira (%38,19 gustura eta %7,64 oso gustura).

PARTAIDETZAREN ARLOA


GOGOBETETASUN OROKORRA

%28,41


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



ALDAKETAREN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUAREN ARLOA

Bereziki nabarmentzekoa da arratsalde - gau txanda aldakorrekook diren langileen ehuneko garrantzitsu bat ez dagoela gustura ospitalearen antolamenduarekin, guztira %71,88 izanik. Gaueko txanda finkoan lan egiten duten pertsonetatik %51,32 ere ez daude gustura antolamenduarekin eta aldaketaren kudeaketarekin. Azpimarratzekoak dira, halaber, batere gustura ez daudela erantzun dutenen artean aurkitzen ditugun ehuneko handiak, bai jagoleen kolektiboetan (%24,04), arratsaldeko txanda finkoko langileen artean (%23,44) eta Amarako zentrotik datozen langileen artean (%24,35).


Ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalak dira gogobetetasun-ehunekorik handiena erakusten dutenak arlo honetan (%40,45 gustura eta %4,69 oso gustura).

**ALDAKETAREN
KUDEAKETA ETA
ANTOLAMENDUAREN
ARLOA**


**GOGOBETETASUN
OROKORRA**

%27,66


**IRITZIA TALDE
PROFESIONALAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)




**IRITZIA EKIPOEN GAINEKO
ERANTZUKIZUNAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)




**IRITZIA LANEKO
HARREMANAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)




**IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO
ANTZINATASUNAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)




**IRITZIA LANEKO
TXANDAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)



**IRITZIA JATORRIZKO
ANTOLAMENDUAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)



**IRITZIA
ADINAREN ARABERA**
(Balioespen positiboa)



LANEKO GIROAREN ARLOA

Laneko giroarekin gogobetetasun-ezaren ehunekorik handiena erakusten duten pertsonak arratsalde - gau txanda aldakorrean lan egiten duten pertsonak dira (%18,75 batere gustura ez eta %43,75 gustura ez). Mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonala (%14,75 batere gustura ez eta %38,11 gustura ez) eta gaueko txanda finkoa duen pertsonala ere (%42,11 gustura ez) gogobetetasun gutxiko kolektiboak izango lirateke.


Beste alde batetik, arlo honetan gogobetetasun-mailarik handiena duten pertsonak ekipoen zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalak dira (%50,69 gustura eta %7,64 oso gustura).

LANEKO GIROAREN ARLOA


GOGOBETETASUN OROKORRA

%27,66


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



BARNE-KOMUNIKAZIOAREN ARLOA

Barne-komunikazioarekin gogobetetasun-ezik handiena duen kolektiboa arratsalde - gau txanda aldakorreko pertsonala da (%41,67 batere gustura ez eta %45,83 gustura ez). Mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonalak ere gogobetetasun-ez nabarmena erakusten du (%37,70 batere gustura ez eta %37,43 gustura ez). Aipatzekoa da, era berean, erizaintzako pertsonalak oso puntuazio altuak eman dituela (gustura ez dauden pertsonak %53,50), baita goiz - arratsalde - gau txanda aldakorreko pertsonalak ere (gustura ez daudenak %51,24).

Arlo honetako gogobetetasun-mailarik handiena ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalek agertu dutena da (%36,81 gustura eta %4,40 oso gustura).


N-INKESTAREN 2003KO EMAITZAK

BARNE-KOMUNIKAZIOAREN ARLOA


GOGOBETETASUN OROKORRA

%22,30


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



HELBUURUAK EZAGUTU ETA HORIEKIN BAT ETORTZEAREN ARLOA

Arratsalde - gau txanda aldakorreetan lan egiten duen pertsonalaren %71,88k eta arratsaldeko txanda finkoan lan egiten duen pertsonalaren %70,31k adierazi dute oso gutxi ezagutzen dituztela helburuak. Gainera, aipatzekoa da mantentze-lan eta zerbitzu orokorretako pertsonalaren %51,64k, jagoleen %50,65ek eta goiz - arratsalde txanda aldakorreetako pertsonalaren %50ek oso gutxi ezagutzen dituztela helburuak.


Helburuak ongien ezagutzen dituztenak ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradunak eta profesionalak dira (%38,37ek ezagutza handia dute eta %6,42k oso handia), baita fakultatiboak ere (%22,55ek ezagutza handia dute eta %3,77k oso handia).

HELBURUAK EZAGUTU ETA HORIEKIN BAT ETORTZEAREN ARLOA


GOGO BETETASUN
OROKORRA

%14,62


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



ZUZENDARITZAREN PERTZEPZIOAREN ARLOA

Arlo honetako ehunekoak, oro har, oso txikiak dira, nahiz horietako batzuk bereziki aipatzekoak diren. Arratsalde - gau txanda aldakor finkoko, gau txandako eta arratsalde txanda finkoko langileek, esaterako, gogobetetasun-ezaren ehuneko oso garrantzitsuak agertzen dituzte, %56,25, %50 eta %40,63 hurrenez hurren, batere gustura ez dioten erantzunaren aukeran.


Gogobetetasun handiena agertzen dutenak ekipo-zuzendaritzaren gaineko agintea duten arduradun eta profesionalak dira (%32,99 gustura eta %5,56 oso gustura). Fakultatiboek dute hurrengo ehunekorik handiena (%16,42 gustura eta %2,08 oso gustura), nahiz puntuazio hori baxua den.

ZUZENDARITZAREN PERTZEPZIOAREN ARLOA


GOGO BETETASUN
OROKORRA

%9,85


IRITZIA TALDE PROFESIONALAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA EKIPOEN GAINEKO ERANTZUKIZUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO HARREMANAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA ZERBITZU-ANTOLAMENDUKO ANTZINATASUNAREN ARABERA (Balioespen positiboa)




IRITZIA LANEKO TXANDAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA JATORRIZKO ANTOLAMENDUAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



IRITZIA ADINAREN ARABERA (Balioespen positiboa)



ARLOEK GOGO BETETASUNEAN DUTEN ERAGINA

Atal honetan pertsonak beren gogobetetasun profesionalean eraginik handiena izan dezaketen alderdiez duten pertzepzioaren emaitzak aurkezten dizkizuegu. Datu horiek bat datoz erantzun-aukera bakoitzaren maiztasun-ehunekoeekin.

Gainera, arlo desberdinen eraginari buruzko pertzepzioa eta inkestan horietako bakoitzari buruz egin den balioespena konparatzen dira.

ARLOA	PERTZEPZIOA	INKESTAREN EMAITZA (balioespen posit.)
Laneko baldintzak	51,30 %	42,57 %
Egindako lanaren aitormena	47,09 %	32,77 %
Ordainsaria	38,41 %	27,61 %
Promozio eta bilakaera profesionala	33,87 %	37,58 %
Laneko giroa	33,03 %	50,55 %
Heziketa	29,47 %	11,55 %
Antolamendua eta funtzionamendua	20,40 %	27,66 %
Parte hartzeko aukerak	15,67 %	28,41 %
Helburuak ezagutzea eta horiekin bat etortzea	8,16 %	14,62 %
Zuzendaritzaren Estiloa	7,90 %	9,85 %
Barne Komunikazioa	6,02 %	22,3 %
Harremana Arduradunekin	6,02 %	52,74 %

SARRITAN EGITEN DIREN IRADOKIZUNAK

IRADOKIZUNA	IRADOKI DUTEN LANGILEEN %
Aitormen indibidualaren eskaera: zehaztu gabeko “pizgarriak” (%29,2) eta ordainsarietan gauzatutako aitormen-eskaera (%11,3).	40,5%
Unitateetan pertsonal urriagatik gustura ez egotea, lana eragin-kortasunez egin ahal izateko.	28,4%
Estamentu desberdinen arteko komunikazio eskasa (%16,4) eta talde-lanik ez egitea, batez ere pertsonaleko kategoria desberdinen artean (%10,4).	26,8%
Baldintza fisiko eta instalazio desegokiak erabiltzaile eta langile-entzat (%12,7) eta bitarteko / materialik ez izatea zerbitzu egoki bat eskaintzeko (%11,5)	24,2%
Parte hartzeko aukera urriak eta kategoria profesional desberdinen iritzia edukitzea eskatzen da, asistentziaren kalitatea hobetzeko helburuz.	19,3%
Antolamendu, lan, antolamendu-aldaketa, etab.ekin loturiko gaiei buruzko informazio urria. Berandu ematen da informazioa.	17,4%
Zuzendaritzako Pertsonalarengana iristeko zailtasunak. Ezagutzen dituen arazoetan ez ditu neurriak hartzen eta arazokak gutxi ezagutzen dituela diote.	17,1%
Inkestari buruzko iruzkinak: ez dute atsegin eskala eta horren helburuei buruzko eszeptizismoa dago.	17%
Desmotibazioa eta lanerako gogoia galtzea. “Erreta dauden pertsonak”.	16%
Heziketa jasotzeko aukera gutxi, ordutegien zailtasunengatik, kontratuengatik, etab.engatik.	13,7%
Ados ez egotea ordutegiekin eta laneko txandekin, seme-alabak dauzkan pertsonalarentzat edo beren ardurapean pertsonala dutenentzat malgutasuna izan eta laguntzak emateko orduan.	11,9%
Pertsonalaren gehiegizko mugikortasuna, horrek dakarren ziurgabetasunarekin eta zein zerbitzutan lan egingo den ez ezagutzearekin.	11,1%
Pazienteekin tratu desegokia izatea: “ez-gizabidetsua” eta goxotasunik gabea.	11,6%

ONDORIOAK

- Batez besteko gogobetetasun-maila orokorra %29,85ekoa da. Horrek esan nahi du erantzunen %70,15 “gustura ez” edo “batere gustura ez” izan dela, eta horrek agerian uzten du Donostia Ospitaleko profesionalen artean gogobetetasun-eza handia dela.
- Balioespenik onenak jaso dituzten arloak hauek dira: “Harremana arduradun eta kolaboratzaileekin”, “Laneko giroa” eta “Laneko baldintzak”.
- Balioespen txarrenea izan dutenak: “Helburuak ezagutzea eta horiekin bat etortzea”, “Heziketa” eta “Zuzendaritzaren Pertzepzioa”.